



JOSE IGNACIO GOENAGA GARRALDA, JAUNAK, ASPARRENEKO UDALEKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA NAIZEN HONEK:

JOSÉ IGNACIO GOENAGA GARRALDA, SECRETARIO-INTERVENTOR DEL AYUNTAMIENTO DE ASPARRENA:

EGIAZTATZEN DUT: *Asparreneko Udaleko Osoko Bilkurak 2017ko urriaren 25ean burututako premiazko ezohiko bilkuran, besteak beste, akordio hau hartu zuela. Hona hemen akordioa hitzez hitz:*

CERTIFICO: *Que el Pleno del Ayuntamiento de Asparrena, en sesión extraordinaria urgente celebrada el día 25 de octubre de 2017 tomo entre otros el Acuerdo que transcrito literalmente dice como sigue:*

“ ARAIAN BELAR ARTIFIZIALEKO FUTBOL ZELAIA ERAIKITZEKO OBREN KONTRATUAREN ESLEIPENA

Udal honek espedientea izapidetu zuen Araian belar artifizialeko futbol zelaia eraikitze obrak kontratatze. Horretarako, esleipen-prozedura irekia ezarri zen, irizpide anitzekin eta izapidetze presazkoaren bidez, eta iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (109. zk., 2017ko irailaren 22a) argitaratu zen.

Proposamenak aurkezteko epea bukatuta, guztira bi aurkeztu ziren eta biak baliozkotzat jo ziren.

Proposamenak balioesteko eta eskaintza onuragarriena hautatzeko prozesua burututa, Osoko Bilkurak 2017ko irailaren 11ko saioan onarturiko baldintza ekonomiko-administratiboen orrian ezarritako zehaztapen eta bermeen arabera, hala nola Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren arabera, azken hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua (SPKLTB), eta sektore publikoko kontratuak garatzeko eta horiei aplikatzeko gainerako araudiaren arabera, esleipen-irizpideak hartu ziren aintzat, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren orrian aurreikusitako adituen batzordearen balio-judizioaren mendekoak zein orrian aurreikusitakoaren arabera automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak.

Horrenbestez, hauxe da emandako puntuazioen guztirako emaitza eta aurkezturiko proposamenen sailkapena, puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuta:



Enpresa	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	OSOA
FIELDTURF POLIGRAS S.A.	12	5	4	4	3	2	5	6	28,98	15	2	86,98
OBRAS PUBLICAS ONAINDIA S.A. / INSTALACIONES ELECTRICAS EKOARGI S.L.L	10	4	3	3	6	4	5	0	35,00	15	0	85,00

Hauek dira baliokidetasunak:

(1) Eskaintako materialaren ingurumen-iraunkortasuna, kontuan hartuta haren jatorria, kontserbazeko beharrezko baliabide naturalak eta zelai-sistemaren osagaien izaera birziklagarria: 12 puntura bitarte.

(2) Proiektuan jasotako belar-motaren kalitatearen hobekuntza (hariaren akabera, zuntzaren zabalera, hariaren pisua/loditasuna): 6 puntura bitarte.

(3) Materialaren zahartze hobe-zikloak ebaluatzea eta iraganaldiak: 4 puntu bitarte.

(4) Zaintze erraztasuna eta materialaren zainketa: 4 puntu bitarte.

(5) Obraren planteamendua eta garapena, erabili beharreko eraikuntza-metodoak, hornitzaileen deskribapena, hornitzaileen konpromiso-gutunak, enpresa azpikontratatistak, laguntzaileak, obrari atxikitako giza baliabide eta materialak: 6 puntura bitarte.

(6) Obra-plangintza (obra-unitateen arabera). Proiektuan jasotako obraren deskribapena oinarri: faseak, obra osoaren prozesua eta garapena, baldintza-orrian jasotako gehieneko gauzatze-epea betetzeko, inbertsioaren banakapena astean arabera, lizitazioko zenbatekoari erreferentzia eginda: 5 puntura bitarte.

(7) Azterketa geotekniko homologatu bat egiteko konpromisoa, zimendatzea optimizatzeko xedez, eta plano topografiko/planimetrikoa: 5 puntura bitarte.

(8) Kirol-ekipamenduaren hobekuntza: 6 puntura bitarte.

(9) Proposamenaren balorazio ekonomikoa eta bere justifikazio egokia, 35 puntura bitarte.

(10) Obraren berme-epealdiaren luzapena: 15 puntura bitarte.

(11) ISO Ingurumen kudeaketari buruzko Kalitate-araua ezarri delako egiaztatzea: 2 puntura bitarte.

Onuragarriena den eta lehen sailkatu den enpresak, honako dokumentazio hau aurkeztu du:



Herriko Enparantza, 1. • P.K. 01250 • C.I.F. P-0101000-H • 945 304006 • Faxe 945 314507
• Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net • Web.: www.asparrena.net

- Enpresaburuaren izaera juridikoaren egiaztapena eta, dagokionean, ordezkari-tza duela.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen egiaztapena.
- Kontratua betetze aldera erabiliko eta esleituko zirela agindutako bitartekoak benetan dituenaren aitortpena, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64.2. artikulua-ren arabera, eta kontratuaren behin betiko bermea eratu duela.
- Obren behin-betiko berme modura, banku-abala 20.647,68 eurokoa.

Hori guztiagatik kontratazio-mahaiaren esleipen-proposamenaren arabera, baldintza ekonomiko-administratiboen orriko 20. oinarriarekin bat etorriz eta aintzat hartuta Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren bigarren xedapen gehigarria, Osoko Bilkurak, aho batez, akordio hauek adostu zituen:

- 1.- Araian belar artifizialeko futbol zelaia eraikitze-ko obra-kontratua_ FIELDTURF POLIGRAS S.A.-ri esleitzea; 412.953,57 eurotan, gehi BEZ, eta obren berme-epealdia 10 urtekoa, eta enpresa esleipendunaren eskaintzak ezarritako gainerako baldintzekin.
- 2.- Eskaera egitea Fieldturf Poligras S.A enpresari esleipenaren jakinarazpen-datatik aurrera gehienez bost egun balioduneko epean ondokoak egin ditzan:
 - a) Administrazio honetara etorri kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.
 - b) Publizitate ofizialari dagozkion gastuak ordaindu: 219,69 euro.”

Eta hau guztia agerian gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau egiten dut Araian 2017ko azaroaren 9an / Para que conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Araia a 9 de noviembre de 2017.

O.I / VºBº
ALKATEA / LA ALCALDESA



IDAZKARIA / EL SECRETARIO